

Monopoly jauna

Mitt Romneyk orain gutxi esan du langileak kaleratu ahal izatea «atsegin» duela; zerbitzu egokia ematen ez diotenak kaleratu ahal izatea, zehaztu du. Aditz hori erabili du: *I like*, jatorrizko hizkuntzan; *datsegit*, sare sozialetako euskara berrian. Aitormena ez du egin mikrofonoa izaltzea zegoela uste zuenean, ezta konfiantzazko kazetari batekin *off-the-record* ari zela ere. Kanpaina ekitaldi batean esan zuen, mikrofonoa eskuan zuela taula gainetik New Hampshireko alderdikide multzo bati hizketan ari zela, Alderdi Errepublikanoako lehendakari gai onena bera dela konbentzitu ahal izateko argudio eraginikorra zela pentsatu zuelako edo.

Beste mundu bat da hau, eztabaida politikoari dagokionez ere. Mariano Raxoik, Galizian beharrean Wyomingen jaioa balitz eta Alderdi Popula-

rreko buruzagia beharrean Alderdi Errepublikanoa balitz, Philippe Montanierrek une honetan Urrezko Danborra jasotzeko baino aukera txikiagoa izango luke Etxe Zurirako lehendakari gai bihurtzeko, Espainiako gobernuburu gisa iragarri berri duen zerga igoeraren laurdena iragarriko balu hemen. Barack Obama bezala, enpresaburu arrakastatsuak hondoratu nahi dituen sozialista izango litzateke Raxoi teapartyzaleentzat. Eta ez dira lau katu.

Estatu Batuetako alderdi kontserbadoreko buruzagiek beren herrialdearentzat zer eredu nahi duten azaltzen baino hobekak dira zer eredu nahi ez duten azaltzen: Angela Merkel, Nicolas Sarkozy, David Cameron eta soka bereko buruzagi eskuindarrek gidatzen duten Europa da, hain zuzen ere, bihurtu nahi ez dutenaren eredu. Datorren azaroan Obamarekin lehiatzeko

Handik eta hemendik

Imanol Murua Uri



Ni zu baino kontserbadoreago lasterketa bilakatu da Alderdi Errepublikanoa barne lehia. Askok ez diotela sinesten da Romneyren arazoa, esaten duena bezain kontserbadore denik ez diotela sinesten, alegia

aukera handiena duenak, langileak kaleratu ahal izatea atsegin duen horrek berak, Europaren ispiluari begira hitz egin zuen New Hampshireko garapenaren egunean: AEB «Europaren estiloko ongizate estatua» bilakatu nahi du Obamak, eta berak, ordea, aurrerantzean ere «aukeren herrialde librea» izan dadin nahi du. Ongizatea kontzeptuak, *welfare*, kutsu negatiboa du hemen askorentzat.

Ni zu baino kontserbadoreago lasterketa bilakatu da Alderdi Errepublikanoa barne lehia. Askok ez diotela sinesten da Romneyren arazoa, esaten duena bezain kontserbadore denik ez diotela sinesten, alegia, eta horrek politika kontserbadoreen txapelaren plantak egitea eraman du Massachusettsetako gobernadore ohia. Ez da erraza lehiakide dituen arraiekin, baina aukera izan duen guztietan ahalagindu da eskuinerago jotzen, Newt Gingrichek eta Rick Perryk —garai batean inkestetan oso goian egondakoak baina benetako bozetan atzera gelditu direnak— Estatu Batuetan paperik gabe urte asko dara-

maten etorkinei eta haien ondorengoei buruz malgutasun eta erruki pixka bat agertu zutenean egin zuen bezala, Mexikoko mugarako hesirik altuenak proposatu eta paperik gabeko milaka eta milaka langileei eta haien ondorengoei aukera guztiak ukatuz, deportatuak izatea salbu.

Odolkiak ordainetan: eskuinetik egin diote orain jauzi lepora Romneyri, baina ezkerreko argudioekin. Enpresaburu gisa krisian ziren enpresen salerosketan jardun zuenez, zailtasunetan zeudenei zukua ateraz aberastu zela leporatu diote Gingrich eta Perry utreke, lanpostuak sortu beharrean suntsitu egin zituela. Mister Monopoly esaten diote, edo Mister Wall Street, Alderdi Errepublikanoaren ertz eskuindarrenek iraindu nahi dutenek. Zoritzarrez, Monopoly jaunak hartu duen abantailarekin, lehia ia bukatu da: Hego Carolina, Florida eta... otsailaren Nevadako euskal estatura inbentzura direnako, dena erabakita egon daiteke. Lastima: primeran pasatzen ari ginen.

Txillardegia, ezinbestekoa

Joseba Permach
Ezker abertzaleko kidea

Bakarrik nago Zerubiden. Baina ez nitaz urrikal, nahita etorri naiz eta bakarrik egotera. Eta bai pozik alegia!». *Leturiaren Egunkaria ezkutua*-ren lehen leerroak dira hauek, hamazazpi urte inguru izango nituen irakurri nituenean. Eragin handia sortu zuen liburua nigan eta oraindik gogoan dut Juan Gartzia nire irakasleak zuzendutako olerki batzuetan idatzitako esaldia: oso leturianoa! Ziur naiz hau ez dela sentimendu pertsonala, herri honetan asko baitira Txillardegiren liburuekin gozatu dutenak.

Urte horietan ere hasi ginen lagunak lehen manifestazioetara joaten eta Txillardegia bera ETA erakundearen sortzaileetarikoa bat izan zela ere garai horretan jakin izango genuen. Gure adinekoek ez genuen frankismoa bizi, edo behintzat hartza-roa ez ginen horretaz jabetu. Baina gerora kontatu ziguten Herri honek bizi zuten tunel beltz eta luzearen erdian argi izpi bat sortu zutenen artean zegoela Txillardegia bera. Beste batzuekin batera herri ikuspegi bat sortu zutela, herri txiki honetatik mundua begiztatzeko

paradigma bat. Zapalkuntza beltzenetik hasita ere, borrokan oinarritutako bidea zena, independentzia eta sozialismoa helburu, nazio eraikuntza egunez egun egiten dela azpimarratzen duena eta herri oso bat eraikitzeke, eraldatzeko, bakoitzak bere bizitzan eta esparruan eragin behar duela etorkizunera itxoin gabe.

Txillardegik hautatutako bideak erbestera eraman zuen, baita bere familia ere. Urte gogorak izango ziren eurentzat, asko maite zuten herria atzean utzi eta agian Leturian agertzen den bezala Euskal Herriko mapari begira: «Astiro, samurki, maitekiro ere miatu ditut mapako zirimarrak eta xehetasun guztiak. Mapa hotz batek hala-ko ugaritasuna gorde lezakeenik ezin pentsa nezakeen gaur baino lehenago, eta maitasuna senditu ez duenak ezin konpreni dezake.»

Bide luze horretan ez zion idazteari utzi, bai literatura alorrean zein euskararen inguruan: gramatika, fonetika eta, nola ez, ezagunena egin zen soziolinguistikaren inguruan. Idaztea ordea ez zen nahiko. Jardun egin behar zuen. Euskal Herriaren alde eta euskaldun egiten gaituenaren euskararen alde.

Euskal Herrira itzulia jada, Herri Batasunaren sortze proze-

suan parte hartu zuen Altsasuko Mahaian bertan egon zelarik eta ondoren EHEko sortzailetako bat ere izan zen. *Leturiaren Egunkaria Ezkutua* irakurri nuen urte horren bueltan hasi nintzen nire lagunekin batera EHEn militatzen eta bertan Joseba Alvarez ezagutzeko aukera izan nuen lehenik, eta nola ez, bere aita ondoren. Gazteak ginen oso, eta miresten genuen Txillardegia parez pare ikusteak inpresionatzen gintuen.

Gerora sarritan topatu eta hitz egiteko aukera izan dut; inoiz ez nahiko nukeen denborarekin eta noski halako aukera suposatu lezakeen sakontasunarekin. Zenbat bizipen eta zenbat jakintza entzuteke!

Ni neu ere Herri Batasunaren sartu nintzen, honetan ere Josebarengatik!, eta bide luzea konpartitu dugu elkarrekin. Txillardegia gora behera handiak izan dituela hurbiletik jakin eta ikusi izan dut. Gogoan dut Joseba beste mahaikideekin batera sartu zutenean Bulebarrean harekin topo egin nuela; somatu zitekeen tristura. Gogoan dut Lizarra Garazi iritsi eta erakusten zuen poztasuna eta aurrera begirako konfiantza. Amaitu zen prozesu hura eta Leturiari bezala udaberriko alaitasuna ere amaitu zitzaion. Negua ere iritsia zela entzun izan diot, edo bederen bere itzaropena hutsaren hurrena

zela. Ez nau harritzen, Loiolako prozesua ere amaitu eta Josebak berriz kartzelan bukatu baitzuten. Han ere bat egin genuen Josebak eta biok. Hilabete luzez egon ginen Salamancan. Dispersioak hiltzen duela diogu askotan, eta hala da, baina hil gabe ere dispersioak bihotzak urratzen ditu, denbora horretan Txillardegik, bere osasun arazoak zirela eta, ezin izan baitzuen Joseba behin ere ikusi.

Baina Txillardegiren gora-beherak gutako bakoitzaren gorabeheraren isla besterik ez dira, gure herriaren maldak eta bihurtuak. Gure herriaren askatasun prozesu malkartsua

ez da erraza. Badago tartea udaberriko, izan da tartea udarako, baina udazkenean ere pasatu ditugu eta negu gorriak ere bai. Horiiek Leturiaren lau urtarokoak. Eta beti ezin da berdina eskaini, beti ezin da irribartsu egon, triste sentitzea eskubidea dugu, baita kritikoa izateko ere! Garrantzitsua ordea urtaro horietan duintasunez eta konpromisoz betetzea da, eta horretan Txillardegia maisu izan dugu.

Bertold Brecht-ek omen zioen bizitza guztian borrokatzen direnak direla ezinbestekoak. Txillarren kasuan bizitzako urte guztiaz gain, urtaro guztietan lan eta borroka egin behar dela erakutsi dugu.

Jakin badakit itzaropen osoz egongo zela Euskal Herrian ireki den agertoki berriaren aurrean, indarrak biltzeko egin den saiakeraren aurrean, bere Donostiako alkatearen lehen hitzak bertsotan entzutean, berriro ere denok udaberriaren sartzen ari garela ikusi eta sentitzerakoa.

Pozez bizitzen ari garen udaberri horren erdian, Txillarren heriotzak bihotz alaiak astindu dizkigu. Letuariaren azken hitzekin bukatu beharko dut beraz: «Eta, bat-batean, zurrara, eta ni beldur: hots, hots... bizi onok... Nire aurrean, bare urdin, argitsu, zabal, itsasoa... Beterioko itsaso baztergabea».

Garrantzitsua Leturiaren lau urtarokoak duintasunez eta konpromisoz betetzea da, eta horretan Txillardegia maisu izan dugu